

**AEKren MINTEGIA: HERRI EKIMENA BULTZATUZ,  
EUSKAL HERRIA EUSKALDUNDUZ**

1996.eko martxoaren 21etik 24ra bere IX. Mintegia egin zuen Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak (AEK). Hiru urtean behin burutzen den Mintegia AEKren ebatz-organu gorena da, eta ordura arteko ibilbideaz hausnartu eta aurrera begirako lan ildoak zehazteko balio izaten du. Beraz, Mintegiak AEKren ihardueran eta funtzionamenduan garrantzi itzela duela ez dago ukatzerik. Oraingo honetan ere, erabaki-garrantzitsuak hartu dituzte Zestoako bainuetxean bildutako AEKko kideek.

Mintegi honetarako aukeraturiko leloak ("Herri ekimena bultzatuz, Euskal Herria euskaldunduz") bertan hartutako erabakien nondik norakoak antzematen lagun diezaguke, izan ere, herri dinamika eta euskararen berreskurapen prozesua bizkortzeko neurriak izan baitira Mintegi honetako eztabaidagairik garrantzitsuenak.

AEKk askotan adierazi du Euskal Herria berreuskalduntzeko bidean ezinbestekoa dela herriaren esku hartzea, tamaina honetako lanik ezin baitaiteke burutu gizarte osoaren inplikazioa lortzen ez bada. Partehartze hori bideratzeko AEK tresna egokia eta eraginkorra dela uste dute AEKko kideek. Izan ere, AEKren helburua ez da euskara irakastera mugatzen. Bere xedea bestelakoa da: Euskal Herria berreuskalduntzea, horre-

tarako helduen euskalduntze-alfabetatzea tresnatzat hartuz. Honengatik, AEKren zeregina ez da bukatzen pertsonak euskalduntzearekin, baizik eta ikasleak euskaldun aktibo, euskara ezagutzeaz gain beren eguneroko bizitzan euskara erabiliko duten euskaldun aktibo, bilakatzen dituen eta berreskuratze prozesuaren eragile bihurtzen dituen.

Euskararen berreskurapena erdiesteko asmoz, aspaldi kaleratu zuen AEKk bere alternatiba. Beronen puntuak eta edukiak gaurkotu ditu Koordinakundeak IX. Mintegi honetan, Euskal Herriaren berreuskalduntzea lortzeko bidean lagungarri suertatuko direlakoan.

### **Alternatiba gaurkotu**

Bost dira AEKren alternatiba honek jasotzen dituen puntuak: lehen aipatutako herri dinamikaz gain, herri ikaskuntza, lurraldetasuna, gestiogintza demokratikoa eta publikotasuna dira, AEKren ustez, Euskal Herri euskalduna xede duen edozein egitasmok kontuan hartu beharreko puntuak.

Herri dinamika zertan datzan arestian azaldu dugu. Herri ikaskuntza, aldiz, AEKren lan-eraren ezaugarri nagusienetakoa da. Lehen esan bezala, gizarte osoak hartu behar du parte euskararen berreskurapenean, eta berdin esan dezakegu ikas-prozesuaz: dakienak, erabiliz eta ikasten ari direnei lagunduz; ez dakienak, ikasiz eta bere inguruan eraginez euskararen aldeko jarrerak zabaltzeko; eta denok, prozesuaren motorea izango den herri ikaskuntza bultzatuz.

Lurraldetasunari dagokionez, argi dago euskararen berreskurapena bilatzen duen mugimendu batek euskararen eremu osoan aritu beharra daukala ezinbestez. Horregatik, Euskal Herri osoa euskalduntzeko helburua duelako, Euskal Herri osoan egiten du lan AEKk. Ildo berean, Euskal Herri osoa kontuan hartuko duen hizkuntz politikaren aldeko adierazpenak ugariak izan dira Mintegi honetan.

Laugarren puntua gestioingintza demokratikoa dugu. Herriaren inplikazioa nahi eta bilatzen duen erakundeak ezinbestekoa du modu demokratiko batez kudeatua izatea. AEKren barruan errealitate anitzak, iritzi anitzak eta pentsamolde anitzak daude, AEK gure herriaren isla delako. AEKren asmoa da izaera hori gorde eta mantentzea, aniztasun horrek koordinakundea aberastu egiten duela pentsatzen baitu. Bestalde, gestioingintza demokratikoak gardentasuna eskatzen du. Beraz, Mintegian onartutakoaren arabera, bere ekintza eta iharduera guztien zergatiak azalduko dizkio AEKk euskal gizarteari, gardentasuna eta partehartzea bermatu nahian.

Azkenik, publikotasuna aipatu behar dugu. AEKren ustez, euskara ikastea euskal herritar guztien eskubidea da. Euskara ikasteko orduan, dirua ezin da inoiz oztopo izan. Dohaintasunerako bokazioa duen erakundeak izanik, euskara denontzat eskatzea, demanda osoari erantzuten saiatzea eta demanda berria sortzen ahalegintzea dira printzipio nagusiak. AEKk argi du euskalduntzea dohainekoa eta denontzat izan behar duela. Eskubide hau bermatzeko orduan Administrazioak erantzunkizun ukazina du, eta berari dagokio horretarako bitartekoak jartzea.

### **Plangintza Orokorraren beharra**

Euskararen berreskurapena helburu izanik, berau lortzeari begira eman beharreko urratsak Mintegi honetan eztabaidatu izana ez da harritzekoa. Onartutako txostenetan agertzen denaren arabera, Euskal Herri osoa kontuan hartuko duen Plangintza Orokorraren beharra aldarrikatu nahi du AEKk. Dena den, Koordinakundeak badaki, jakin ere, hau bezalako lan batek elkarlana eta euskaltzale guztion batasuna eskatzen duela. Beraz, gaur egun euskalgintzak dituen batasunguneak eta bereziki Euskal Kulturaren Batzarrea (EKB) indartzeko erabakia hartu du Mintegiak.

Irakaskuntza ere Mintegi honetako gai nagusietariko bat dugu. Hauxe da AEKren lanaren atal garrantzitsuena: helduak

euskalduntzen eta alfabetatzen dihardu Koordinakundeak, erdaldunak euskaldun bilakatzen. Baina ez nolanhiko euskaldunak; euskara erabili eta beren eguneroko harremanetan euskaldun osoak izando direnak: horra hor gure hizkuntzaren berreskurapenak eskatu eta AEKK sortu behar dituen euskaldunak. Eta helburu hau erdiesteko, kalitatea eta emaitzak etengabe hobetzeko beharra du AEKK.

Honen ondorioz, zenbait erabaki hartu du AEKK Mintegi honetan. Alde batetik, irakasleriaren prestakuntzan urrats berriak emango ditu hemendik aurrera. Bestalde, eta etorkizuneko erronkei aurre eginez, bi arlotan indar bereziz lan egiteko asmoa du AEKK: alde batetik, eskaintza berezian munduan egon diren esperientziak sakondu eta hedatzea (familien euskalduntzea, lagun taldeena, lan mundua eta abar); bestaldetik, barnetegiei ere bultzada berria emango zaie etorkizunean.

Hauexek dira, labur-labur, IX. Mintegi honetako ildo nagusiak. Nabaria denez, erabaki garrantzitsuak hartu dituzte AEKKko kideek, beti ere gure hizkuntzaren berreskurapena gogoan. Dударik ez izan AEKK bere orain arteko ibilbideari jarraituko diola, euskara eta Euskal Herriaren mesedetan.

*Erramun Osa*